IRAGARKIA, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoan ezarritakoa haustearren, zehapen-espedienteak irekitzen dituzten Herrizaingo Saileko Segurtasun Sailburuordetzako ebazpenak jakinarazteko dena. 17941

# Pribatuen Iragarkiak

## LANTIK SA

IRAGARKIA, Mikroordenagailuez hornitzeko kontratuaren lehiaketari buruzkoa. 17943

## SPRILUR SA

IRAGARKIA, hornitzaile izangaien eskaera publikoari buruzkoa. 17945

# Xedapen Orokorrak

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

## 4221

115/2007 DEKRETUA, uztailaren 10ekoa, Kultura Ekintzailea eta Enpresak Sortzeko aukera babesten duen dekretuaren bigarren aldaketa onartzen duena.

Kultura Ekintzailea eta Enpresak Sortzea babesten duen abenduaren 23ko 328/2003 Dekretuaren IV. kapituluaren bidez langabetuek enpresa-egitura berriak sortzeko diru-laguntzak arautzen dira. Hala ere, kapitulu horretan ezarritakoaren arabera, ezin izango dituzte diru-laguntza horiek eskuratu honako izaera hauek dituzten proiektuek: Laneko Sozietate Anonimoak, Laneko Sozietate Mugatuak eta Sozietate Kooperatiboak.

Laneko Sozietate Anonimoen, Laneko Sozietate Mugatuen edo Sozietate Kooperatiboen izaera juridikoa duten enpresa-proiektuak Gizarte Ekonomia arloko dirulaguntza programa espezifikoen bidez babestuak izan dira; izan ere, programa horietan sartzeko betekizunak nahiz laguntzen zenbatekoak eta 328/2003 Dekretuan bestelako sozietateentzat eskaintzen direnak desberdinak dira.

Hori dela-eta, enpresa-proiektu bat garatu nahi zutenak ohartzen ziren aukeratutako izaera juridikoak baldintzatu egiten zuela nolako diru-laguntza eskatu ahal zuten, zer-nolako eskakizunak bete behar zituzten, no-

ANUNCIO por el que se notifican las Resoluciones de la Viceconsejería de Seguridad del Departamento de Interior incoatorias de los expedientes sancionadores abajo indicados, con relación a infracciones de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana. 17941

# Anuncios Particulares

## LANTIK, S.A.

ANUNCIO relativo al suministro de microordenadores. 17943

## SPRILUR, S.A.

ANUNCIO relativo a la solicitud pública de candidatos a proveedores. 17945

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

## 4221

DECRETO 115/2007, de 10 de julio, de segunda modificación del Decreto de Apoyo a la Cultura Emprendedora y a la Creación de Empresas.

El Decreto 328/2003, de 23 de diciembre, de apoyo a la cultura emprendedora y a la creación de empresas regula, en su Capítulo IV, subvenciones por la creación de nuevas estructuras empresariales por parte de personas que se encuentran en situación de desempleo, si bien excluyendo de la posibilidad de acceso a estas ayudas a los proyectos que adopten la forma de sociedad anónima laboral, sociedad limitada laboral o sociedad cooperativa.

Estos proyectos empresariales, con forma jurídica de sociedad anónima laboral, sociedad limitada laboral o sociedad cooperativa, han venido siendo apoyados desde programas subvencionales específicos para emprender en Economía Social, en los que se establecían unos requisitos de acceso y unas cuantías de ayuda diferentes de las previstas en el Decreto 328/2003 para otro tipo de sociedades.

Las personas interesadas en desarrollar su idea empresarial se encontraban con este panorama, en el que la forma jurídica que adoptasen condicionaba el tipo de subvención al que poder optar, los requisitos que ha-

lako baldintzak onartu behar zituzten, bai eta jaso behar zuten diru-laguntzaren kopurua bera ere; hortaz, erabat baldintzatuta zeuden eratu nahi zuten sozietatearen izaera aukeratzeko orduan.

Beraz, enpresa-proiektuek jasotzen duten babesa aukeratutako izaera juridikoak baldintzatuta dagoela ikusita, diru-laguntzak emateko erregimen bikoitz horren funtsa aztertu ondoren, enpresa-egiturak sortzera bideratutako diru-laguntzak bateratzeko beharra ikusi da, baldintza berdinak ezartzen dituen programa bakarraren barruan sartuz, proiektuetan aukeratutako sozietate-mota alde batera utzita. Diru-laguntzak bateratzeko, 328/2003 Dekretua aldatu behar da, bere aplikazio-eremu materialean enpresa-ekimen guztiak onartuz, izaera juridikoa edozein dela ere.

Lehenengo artikuluaren bidez 328/2003 Dekretuaren 39. artikuluaren 2. paragrafoa aldatzen da, 2. paragrafo hori 3.era pasatuz eta 2. paragrafo berri bat erantsiz. Aldaketa horren ondorioz, artikulu horretan aipatzen den betekizuna -egitasmo kolektiboetan enpresaren kapital sozial guztia bazkide-langile guztien artean banatuta egon beharko da- malgutu egiten da, eta aurrerantzean bazkide-langileak ez direnek ere parte hartu ahal izango dute, gehienez kapital sozialaren heren bat eskuratuz. Era berean, bazkide guztiak derrigorrez pertsona fisikoak izango dira, baina, salbuespen gisa, honako hauen parte hartzea onartzen da: arrisku-kapitaleko entitateak, xede nagusitzat kooperatibak edo laneko sozietateak sortzea duten sozietateak eta irabazi asmorik gabeko entitateak, baztertze-arriskuan dauden taldeak gizarteratzea eta laneratzea helburutzat dutenak.

Bigarren artikuluaren bidez, 328/2003 Dekretuaren 40. artikulua aldatzen da, artikulu horretan, Gizarte Ekonomiako Sozietateak diru-laguntzetatik bazter utzita geratzen baitziren. Artikulua aldatuz bazterketa hori bertan behera utzi da eta horrelako sozietateak onuradunen artean onartu dira.

Dekretu honen hirugarren artikuluaren bidez aldatu egiten da 328/2003 Dekretuaren 41. artikulua, diru-laguntzaren zenbatekoari buruzkoa. Ondorioz, dirulaguntzaren eskatzaileen artean sozietateko bazkideak ez ezik sozietatea sortu ondoren sartutakoak ere onartzen dira, betiere eskaera aurkezteko egunaren aurretik sartu badira sozietatean.

Laugarren eta bosgarren artikuluetan egokitzapen txikiak egiten dira diru-laguntzaren eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriei buruz. Gizarte Ekonomiako sozietateak onartzeak eragin ditu aldaketa horiek.

Azken artikuluan «minimis» laguntzen araudia eguneratu egiten da, Europako Batzordearen EB 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 zenbakiko araudiaren bidez aldatu baita; horren arabera, «minimis» laguntzen kontzeptupean edozein onuradunek hiru urte fiskaleko

bían de reunir, las condiciones a que se sujetaban y el importe mismo de la ayuda a recibir, limitando de algún modo su libertad de elección del modelo de sociedad a constituir.

Cuestionado el fundamento de esta duplicidad de regímenes subvencionales, que implica la existencia de diferencias en el apoyo prestado a los proyectos empresariales únicamente en función de la forma jurídica adoptada, se ha considerado necesario unificar las ayudas dirigidas a fomentar la creación de estructuras empresariales bajo el mismo programa, al que poder acceder en igualdad de condiciones al margen del tipo de sociedad en el que se materialice el proyecto. Para llevar a cabo esta equiparación de las ayudas se modifica el Decreto 328/2003, acogiendo en su ámbito material de aplicación a todas las iniciativas empresariales, sea cual sea la forma jurídica adoptada.

En el artículo primero se modifica el párrafo 2 del artículo 39 del Decreto 328/2003, que pasa a ser el párrafo 3 y se añade un nuevo párrafo 2. El cambio introducido supone la flexibilización del requisito previsto en este artículo, relativo a la necesidad de que, en los proyectos colectivos, el capital social estuviese participado en su totalidad por personas socias trabajadoras, permitiéndose ahora la participación de personas socias no trabajadoras hasta un máximo de un tercio del capital social. Asimismo, tras establecer la obligatoriedad de que todas las personas socias sean personas físicas, se admite como excepción la participación de entidades de capital riesgo, sociedades cuyo objeto social sea la promoción de cooperativas o sociedades laborales, así como entidades sin ánimo de lucro cuyo objeto social sea la integración social y laboral de colectivos en riesgo de exclusión social.

En el artículo segundo se modifica el artículo 40 del Decreto 328/2003, eliminado la exclusión de las ayudas que en él se hacia de las Sociedades de Economía Social, para incluirlas expresamente como posibles beneficiarias.

El artículo 41 del Decreto 328/2003, relativo a la cuantía de la subvención, es modificado por el artículo tercero del presente Decreto, en el sentido de permitir el acceso a la subvención, no solo a las personas socias de la sociedad, sino también a aquellas que se incorporen tras su creación, siempre que lo hagan antes de la fecha de presentación de la solicitud.

Los artículos cuarto y quinto responden a pequeñas adaptaciones de las disposiciones que regulan la documentación a presentar junto con la solicitud de subvención, derivadas de la nueva incorporación de las sociedades de Economía Social.

En el último artículo se actualiza la normativa sobre ayudas «de mínimis», que ha sido objeto de nueva regulación mediante el Reglamento (CE) n.º 1998/2006 de la Comisión de 15 de diciembre de 2006, que ha supuesto la elevación a 200.000 euros de la cuantía má-

denboraldian jasoko duen gehieneko zenbatekoa 200.000 eurora igotzen da.

Horrenbestez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren proposamenez, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusiari, Lan Harremanen Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Euskal Kontseiluari eta gaia doakien gainerako organo aholku-emaileei entzun ondoren, eta Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko uztailaren 10ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.***– Kultura Ekintzailea eta Enpresak Sortzeko aukera babesten duen abenduaren 23ko 328/2003 Dekretuaren 39. artikuluaren 2. paragrafoa aldatu egiten da; 2. paragrafoa 3.a izatera pasatu eta artikulu berean bigarren paragrafo berri bat eransten da, honako hau dioena:

> «2.– Egitasmo kolektiboetan, bazkide guztiak pertsona fisikoak izango dira; nolanahi ere, honako hauen parte hartzea ere onartuko da: arrisku-kapitaleko entitateak, kooperatibak edo laneko sozietateak sustatzea xedetzat duten sozietateak eta irabazi asmorik gabeko entitateak, baztertze-arriskuan dauden taldeak gizarteratzea eta laneratzea helburutzat dutenak.
>
> 3.– Edozein modutan, kapital sozialaren heren bat baino ezin izango da banatu bazkide ez diren langileen artean.»

***Bigarren artikulua.***– Kultura Ekintzailea eta Enpresak sortzeko aukera babesten duen abenduaren 23ko 328/2003 Dekretuaren 40. artikuluaren lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

> «Bakarka dela edo Ondasun Erkidego, Sozietate Zibil edo edozein eratako Merkataritza Sozietate gisa dela, bai eta Gizarte Ekonomiako Sozietate gisa dela ere -halakotzat hartuko dira Laneko Sozietateak eta Sozietate Kooperatiboak-ondoko baldintzak bildu beharko dituzte Kapitulu honek biltzen dituen laguntzen onuradunek:»

***Hirugarren artikulua.***– Kultura Ekintzailea eta Enpresak sortzeko aukera babesten duen abenduaren 23ko 328/2003 Dekretuaren 41. artikuluaren lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

> «1.– Laguntzaren zenbatekoa 6.000 eurokoa izango da bazkide-langile edo izaera mugagabeko langile bakoitzeko, baldin eta bazkide fundatzaileak badira edo diru-laguntzaren eskaera egin aurretik sozietatean sartu badira; gainera, proiektu bakoitzeko guztizko zenbatekoa 30.000 eurokoa izango da gehienez ere.»

***Laugarren artikulua.***– Kultura Ekintzailea eta Enpresak sortzeko aukera babesten duen abenduaren 23ko

xima a percibir por este concepto durante un periodo de tres años fiscales.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, oídos el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, el Consejo de Relaciones Laborales, el Consejo Económico y Social Vasco y los demás órganos consultivos interesados, y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno, en su sesión celebra el día 10 de julio de 2007,

DISPONGO:

***Artículo primero.***– Se modifica el párrafo 2 del artículo 39 del Decreto 328/2003, de 23 de diciembre, de Apoyo a la Cultura Emprendedora y a la Creación de Empresas, que pasa a ser párrafo 3 y se añade un nuevo párrafo 2 en el mismo artículo, con la siguiente redacción:

> «2.– En los proyectos colectivos la totalidad de personas socias han de ser personas físicas, admitiéndose únicamente la participación de entidades de capital riesgo, sociedades cuyo objeto social sea la promoción de cooperativas o sociedades laborales, así como entidades sin ánimo de lucro cuyo objeto social sea la integración social y laboral de colectivos en riesgo de exclusión social.
>
> 3.– En todo caso, el capital social no podrá estar participado en más de un tercio por personas socias que no sean personas trabajadoras.»

***Artículo segundo.***– Se modifica el párrafo primero del artículo 40 del Decreto 328/2003, de 23 de diciembre, de Apoyo a la Cultura Emprendedora y a la Creación de Empresas, con la siguiente redacción:

> «Serán beneficiarias de las ayudas a las que se refiere el presente Capítulo las personas solicitantes que bien individualmente o bajo la forma de Comunidad de Bienes, Sociedad Civil o Sociedad Mercantil de cualquier tipo, y Sociedades de Economía Social, considerándose como tales las Sociedades Laborales y las Sociedades Cooperativas, reúnan los siguientes requisitos:»

***Artículo tercero.***– Se modifica el párrafo 1 del artículo 41 del Decreto 328/2003, de 23 de diciembre, de Apoyo a la Cultura Emprendedora y a la Creación de Empresas, con la siguiente redacción:

> «1.– La cuantía de la subvención será de 6.000 euros por persona socia trabajadora o de trabajo de carácter indefinido, que sean personas socias fundadoras o que se incorporen a la sociedad antes de la fecha en la que presenten la solicitud de ayuda, sin que en ningún caso la cuantía total por proyecto pueda exceder de 30.000 euros.»

***Artículo cuarto.***– Se modifica el apartado b) del párrafo 4 del artículo 42 del Decreto 328/2003, de 23 de

328/2003 Dekretuaren 42. artikuluaren laugarren paragrafoko b) idatz-zatia aldatzen da, eta honela geratzen da:

«b) Sustatzaile bakoitzaren NANaren fotokopia, eta identifikazio fiskaleko txartela Ondasun Erkidegoen, Sozietate Zibilen, Merkataritza Sozietateen eta Gizarte Ekonomiako Sozietateen kasuan.»

***Bosgarren artikulua.***– Kultura Ekintzailea eta Enpresak sortzeko aukera babesten duen abenduaren 23ko 328/2003 Dekretuaren 42. artikuluaren laugarren paragrafoko g) idatz-zatia aldatzen da, eta honela geratzen da:

«g) Ondasun Erkidegoak, Sozietate Zibilak, Merkataritza Sozietateak eta Gizarte Ekonomiako Sozietateak badira, kontratuaren edo eraketa eskrituraren kopia.»

***Seigarren artikulua.***– Kultura Ekintzailea eta Enpresak sortzeko aukera babesten duen abenduaren 23ko 328/2003 Dekretuaren 46. artikuluari idazkera berria eman zaio, eta honela geratzen da:

«Laguntzen erregimen hau Europako Batzordeak ezarritako «minimis» arauaren pean dago (Batzordearen EB 1998/2006 zk. Araudia, 2006ko abenduaren 15ekoa), eta, hortaz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak beharrezkoa den mekanismoa ezarriko du Kapitulu honetan aurreikusitako laguntzen erregimenaren ezein onuradunek 200.000 eurotik gorako dirukopurua ez duela jasoko bermatzeko «minimis» laguntzen kontzeptupean, hiru ekitaldi fiskaleko denboraldian.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko uztailaren 10ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

diciembre, de Apoyo a la Cultura Emprendedora y a la Creación de Empresas, con la siguiente redacción:

«b) Fotocopia del DNI de cada una de las personas promotoras y tarjeta de identificación fiscal en los supuestos de Comunidad de Bienes, Sociedad Civil, Sociedad Mercantil y Sociedad de Economía Social.»

***Artículo quinto.***– Se modifica el apartado g) del párrafo 4 del artículo 42 del Decreto 328/2003, de 23 de diciembre, de Apoyo a la Cultura Emprendedora y a la Creación de Empresas, con la siguiente redacción:

«g) En los supuestos de Comunidades de Bienes, Sociedades Civiles, Sociedades Mercantiles y Sociedades de Economía Social, copia del contrato o escritura de constitución.»

***Artículo sexto.***– Se da nueva redacción al artículo 46 del Decreto 328/2003, de 23 de diciembre, de Apoyo a la Cultura Emprendedora y a la Creación de Empresas, que queda redactado de la siguiente manera:

«El presente régimen de ayudas queda sujeto a la regla «de minimis» establecida por la Comisión Europea [Reglamento (CE) n.º 1998/2006 de la Comisión de 15 de diciembre de 2006] y, por tanto, el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social articulará el mecanismo necesario para garantizar que ninguna de las personas beneficiarias del régimen de ayudas previsto en este Capítulo podrá percibir una cantidad superior a 200.000 euros en concepto de ayudas «de minimis» durante cualquier periodo de tres ejercicios fiscales.»

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 10 de julio de 2007.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.